

# EGAk B2 2023

## Azterketa eredia Règlement d'examen

**Ce règlement pourra être modifié en cours d'année, si les besoins de l'organisation l'exigent.**

**Honako eredu hau urtean zehar moldatzen ahalko da, antolaketa beharrek hala eskatzen badute.**

### 1) Nombre de jours/épreuves

Le certificat de niveau B2 du Certificat de compétence en basque EGAk B2 se compose d'un examen écrit et d'un examen oral. La moyenne doit être obtenue à chacun des deux.

Les examens se déroulent en deux phases et trois épreuves :

- Le premier jour ont lieu l'épreuve écrite et l'épreuve de compréhension orale.
- Le deuxième jour a lieu l'épreuve d'expression orale.

Les règles établies par l'Académie de la langue basque Euskaltzaindia sont prises comme référence de correction.

### 2) Durée

L'épreuve écrite se déroule en **2h45**, auxquelles il faut ajouter la durée nécessaire à l'exercice de la compréhension orale.

### 1) Egunak / proba kopurua

B2 mailako Euskara Gaitasun Agiria, EGAk B2, bi azterketaz osatua da: azterketa idatzia eta ahozko azterketa. Biak gainditzea beharrezkoa da EGAk B2 lortzeko.

Azterketak bi fasetan eta hiru probatan iragaten dira:

- Lehen egunean proba idatzia eta entzunaren ulermena.
- Bigarren egunean ahozko adierazpen proba.

Euskaltzaindiaren arauak dira zuzentasunaren oinarrian.

### 2) Iraupena

Azterketa idatziak **2h45** irauten du, entzunaren ulermena neurtzen duen ariketa pasatzeko behar den denbora kontuan izan gabe.

### 3) Description des épreuves

#### 3.1) Épreuve écrite

L'épreuve écrite comporte trois types d'exercices, mais cette même journée le candidat devra également réaliser celui de la compréhension de l'oral :

- Exercice grammaire
  - 1 : Synonymes
  - 2 : Compléter espaces
- Compréhension de l'écrit
- Rédaction
  
- Compréhension de l'oral

#### a) Exercices de grammaire 1 : Synonymes

Des mots sont proposés dans un tableau. Le candidat devra en trouver les synonymes dans le texte présenté à côté.

Chaque réponse correcte vaut un demi-point. Pour valider cet exercice noté sur 10 points, il devra obtenir un minimum de 5 points\*.

Les réponses erronées ne donneront pas lieu à un retrait de points.

#### 2 : Compléter les espaces vides

Afin de compléter les espaces vides d'un texte, le candidat devra trouver l'option correcte parmi les trois proposées dans un tableau.

Chaque réponse correcte vaut un demi-point. Pour valider cet exercice noté sur 10 points, il devra obtenir un minimum de 5 points\*.

Les réponses erronées ne donneront pas lieu à un retrait de points.

\*Les points obtenus dans l'exercice des synonymes et dans celui de compléter les espaces vides seront totalisés : si le candidat ne parvient pas à 5 points dans l'un des deux exercices, mais qu'il obtient une moyenne de 11 points entre les deux, ils lui seront validés. Pour valider l'examen écrit, le candidat devra impérativement obtenir la moyenne à l'exercice.

#### b) Compréhension de l'écrit

Des textes seront proposés au candidat et ce dernier devra répondre à des questions de compréhension.

Exercice noté sur 20 points.

### 3) Proben deskribapena

#### 3.1) Azterketa idatzia

Azterketa idatziak hiru ariketa mota ditu, baina egun horretan beste bat ere egiten da, entzunaren ulermenarena:

- Gramatikako ariketak
  - 1: Sinonimoak
  - 2: Hutsuneak bete
- Irakurriaren ulermena
- Idazlana
  
- Entzunaren ulermena

#### a) Gramatikako ariketak 1: Sinonimoak

Taula batean diren hamar hitzen baliokide egokiak, ondoko testu batean atzeman beharko ditu azterketariak.

Erantzun zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa du. 10 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, 5 puntu erdietsi behar dira gutienez\*. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

#### 2: Hutsuneak bete

Testu bateko hutsuneak betetzeko, ondoan aurkeztu taulan diren hiru aukerarik zein den zuzena hautatu beharko du azterketariak. Erantzun zuzen bakoitzak puntu erdiko balioa du. 10 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, 5 puntu erdietsi behar dira gutienez\*. Erantzun okerrengatik ez da punturik kenduko.

\*Sinonimoen eta Hutsuneak bete ariketen kalifikazioak bilduko dira eta bietatik batean 5 puntu lortu ez bada ere, bien artean gutienez 11 puntu lortuz, gaindituzat emanen dira. Azterketa idatzia gainditzeko, gramatikako ariketa hauen bilduma gainditzea baitezpadakoa da.

#### b) Irakurriaren ulermena

Testu batzuk aurkeztuko zaizkio azterketariari, horiei buruzko ulermen galderen erantzun egokia hauta dezan.

20 punturen gain neurtua da ariketa.

### c) Rédaction

Deux sujets de rédaction au choix seront proposés et le candidat devra développer l'un des deux. La production devra comporter environ 250 mots.

Pour valider cet exercice noté sur 30 le candidat devra obtenir un minimum de 15 points. L'obtention de la moyenne à l'exercice de rédaction est indispensable pour être reçu à l'écrit.

### d) Compréhension de l'oral

Cet exercice se déroulera le jour de l'épreuve écrite.

Pour cet exercice, le candidat entendra des extraits d'enregistrement audio. Pour chacun d'entre eux, des questions à choix multiples ou sous la forme vrai/faux lui seront posées, et il devra choisir la bonne réponse parmi celles proposées.

Exercice noté sur 5 points.

### 3.2) Production orale :

Elle comporte deux exercices :

- La présentation orale d'un document.
- Un entretien improvisé.

Le candidat disposera de 15 minutes pour préparer le premier exercice. Un jury composé de deux examinateurs entendra les candidats en binômes. L'épreuve durera au total 20 minutes. Pour valider cette épreuve notée sur 20, il devra obtenir un minimum de 10 points.

Elle est éliminatoire pour l'obtention du certificat de niveau B2.

Par la suite, la moyenne de l'examen oral sera calculée entre cet exercice et celui de la « Compréhension de l'oral ».

### c) Idazlana

Bi gai izanen dira aukeran eta azterketariak horietako bat garatu beharko du. Azterketariak 250 hitz inguru idatzi beharko ditu.

30 punturen gain neurtua den ariketa hau gainditzeko, azterketariak 15 puntu erdietsi beharko ditu gutienez. Azterketa idatzia gainditzeko, baitezpadakoa da azterketariak idazlana gaindi dezan.

### d) Entzunaren ulermena

Azterketa idatziaren egunean eginen da ariketa hau.

Grabaketa zatiak entzunen ditu azterketariak. Zati bakoitzari buruz galderak eginen zaizkio eta erantzun zuzena hautatu beharko du, aukera anitzekoak edo egia/gezurra moldean emanen zaizkion erantzunen artean.

5 punturen gain neurtua den ariketa.

### 3.2) Ahozko adierazpena:

Bi ariketa ditu:

- Dokumentu baten ahozko azalpena.
- Bat-bateko elkarrizketa saioa.

Azterketariak 15 bat minutu izanen dute probaren lehen ariketa prestatzeko. Bi aztertzailez osatu epaimahaiak, binaka entzunen ditu azterketariak. Probaren iraupena 20 bat minutukoa izanen da, orotara.

20en gain neurtua den proba hau gainditzeko, 10 puntu erdietsi beharko ditu gutienez.

Proba hau gainditzea baitezpadakoa da B2 mailako agiria gainditzeko.

Ahozko azterketaren batez-bestekoa gero eginen da, ariketa honen eta "Entzunaren ulermena" ariketaren artean.

### a) Présentation orale d'un document

On donnera à chaque candidat un sujet différent par écrit, qu'il leur faudra étudier pendant quinze minutes. À tour de rôle, chaque candidat devra ensuite présenter le document qui lui aura été échu pendant quatre minutes en tenant compte des éléments suivants :

=> procéder à une analyse succincte du sujet

=> décrire les points principaux du contenu

=> proposer un avis ou un développement du sujet, propre au candidat.

Chaque candidat devra également montrer qu'il a bien compris la présentation effectuée par le second candidat, en répondant à une question des examinateurs.

### b) Entretien improvisé

Les examinateurs donneront un sujet aux candidats. Chaque candidat devra développer un point de vue différent sur ce sujet.

Les candidats débattront en défendant le point de vue qui leur aura été imposé. Afin de guider et/ou d'équilibrer la discussion, les examinateurs pourront intervenir. À tous les deux, les candidats devront argumenter pendant environ sept minutes.

### 4) Barème

Le barème des différents exercices constituant l'examen sera le suivant :

### a) Dokumentu baten ahozko azalpena

Azterketari bakoitzari gai desberdin bat emanen zaio idatziz, hamabost minutuz prestatzeko. Ondotik, azterketari bakoitzak bere aldi, egokitu zaion informazioaren lau bat minutuko azalpena eman beharko du honako elementuak kontuan hartuz:

=> gaiaren aurkezpen txukuna egitea

=> mamiaren puntu funtsezkoenak deskribatzea

=> iritzi edo gaiaren hedadura posiblea proposatzea azterketariak bere baitatik.

Azterketari bakoitzak frogatu beharko du ere, besteak egin duen aurkezpena ulertu duela, aztertzaileak eginen dion galdera bati erantzunez.

### b) Bat-bateko elkarrizketa saioa

Aztertzaileek gai bat emanen diete azterketariei. Azterketari bakoitzak gai horri buruzko ikusmolde bat garatu beharko du.

Azterketariak elkarrizketan arituko dira, emana zaien ikuspuntuaren alde eginez. Elkarrizketa edo eztabaida bideratzeko edota orekatzeko, aztertzaileek parte har dezakete. Azterketariak, bien artean, guti gora behera zazpi minutuz arituko dira.

### 4) Puntuazioa

Azterketako ariketak eta puntuazioak gisa honetan banatuko dira:

<b>B2 mailako Euskara Gaitasun Agiriaren azterketa: Proben puntuazioa</b>			
<b>Azterketa mota</b>	<b>Ariketa</b>	<b>Gehienez lor daitekeen puntuazioa</b>	<b>Gaunditzeko lortu behar den puntuazioa</b>
<b>Proba idatziak 1</b>	1.- Gramatikako ariketak	<b>20</b>	5 bakoitzean edo bien artean 11
	1.1 Sinonimoak	10	
	1.2 Hutsuneak bete	10	
	2.- Irakurriaren ulermena	<b>20</b>	
	2.1 Erantzun egokia	5	
	2.2 Zuzen ala oker	10	
	2.3 Hutsuneetan koka	5	
<b>Proba idatziak 1 Orotara</b>		<b>40</b>	<b>20</b>
<b>Proba idatziak 2</b>	Idazlana	<b>30</b>	<b>15</b>
<b>Idatzia orotara</b>		<b>70</b>	<b>35</b>
<b>Ahozko probak</b>	Entzunaren ulermena	10	-
	Ahozko azalpena	20	<b>10</b>
	Bat-bateko elkarrizketa		
<b>Ahozkoa orotara</b>		<b>30</b>	<b>15</b>
<b>Azterketa orotara</b>		<b>100</b>	

<b>Examen du Certificat de compétence en basque de niveau B2 : Notation des épreuves</b>			
<b>Types d'épreuves</b>	<b>Exercice</b>	<b>Exercice noté sur</b>	<b>Note requise pour être reçu(e)</b>
<b>Epreuves écrites 1</b>	1.- Exercices de grammaire	<b>20</b>	5 à chaque exercice ou 11 entre les deux
	1.1 Synonymes	10	
	1.2 Compléter les espaces	10	
	2.- Compréhension écrite	<b>20</b>	
	2.1 Réponse correcte	5	
	2.2 Vrai ou faux	10	
	2.3 Placer le texte	5	
<b>Epreuves écrites 1 Total</b>		<b>40</b>	<b>20</b>
<b>Epreuves écrites 2</b>	Rédaction	<b>30</b>	<b>15</b>
<b>Total écrit</b>		<b>70</b>	<b>35</b>
<b>Epreuves orales</b>	Compréhension de l'oral	10	-
	Présentation orale	20	<b>10</b>
	Entretien improvisé		
<b>Epreuves orales Total</b>		<b>30</b>	<b>15</b>
<b>Total général</b>		<b>100</b>	

- Le résultat final sera accompagné d'une mention Très Bien/Bien/Assez Bien/Reçu ou non admis.
- La non-obtention de la moyenne à l'exercice de la rédaction (15/30) est éliminatoire.
- Si le candidat n'obtient pas 5 points à chaque exercice de grammaire, un système de compensation sera utilisé : le candidat devra obtenir 11 points au total pour valider l'épreuve écrite.
- La non-obtention de la moyenne à l'épreuve de l'expression orale est éliminatoire.

### 5) Consultation de copie

Si un candidat qui n'a pas été reçu à l'examen souhaite consulter sa copie, il peut en faire la demande. Le Comité Scientifique fixera une date à cet effet, si les conditions de l'organisation, le permettent.

### 6) Gestion des handicaps

Afin que les candidats à besoins spécifiques puissent passer les épreuves dans des conditions équitables, le Conseil Scientifique mettra en place les moyens nécessaires, tant en ce qui concerne la durée que les moyens, sans altérer la compétence requise, pour maintenir le niveau d'examen requis ; à condition que la demande soit formulée et l'avis médical présenté dans les délais d'inscription.

- Azken emaitza Bikain/Ongi/Aski Ongi/Gainditua edo Ez gainditua izanen da.
- Idazlanean batez bestekoa lortzea baitezpadakoa da idatzia gainditzeko (15/30).
- Esaldiak berridazteko ariketa bikoitzean eta lexikoarenean bakoitza ez bada gainditu 5 punturekin, konpentsazio-sistema erabiliko da, bien artean 11 puntu lortu beharko ditu azterketariak probak gainditzat emateko. Proba hau gainditzea baitezpadakoa da idatzia gainditzeko
- Ahozkoan, "Mintzamena" gainditzea baitezpadakoa da agiria eskuratzeko.

### 5) Kopien kontsulta

Azterketa gainditu ez duen azterketari batek bere kopia kontsultatu nahi izanez gero, eskaera egin dezake. Batzorde Zientifikoak data bat finkatuko du horretarako, antolaketa ahaleki hori baimentzen badute.

### 6) Azterketa egokituak

Behar bereziren bat duten azterketariak azterketa berdintasunez egiteko parada ukan dezaten, Batzorde Zientifikoak beharrezkotzat jotzen dituen egokitzapenak ezarriko ditu, denboran nahiz baliabideetan, eskatu beharreko gaitasun-maila murriztu gabe betiere; azterketariak eskaera eta beharrezko mediku-agiria izen-emate epeetan helarazi beharko ditu.